



**Oharra:**

Honako dokumentu hau Eusko Jaurlaritzak itzuli du euskarara eta Europar Batasuneko Kontseiluak, beraz, ez du horretan erantzukizunik.

**Nota:**

La traducción de este documento al euskera ha sido realizada por el Gobierno Vasco y no compromete la responsabilidad del Consejo de la Unión Europea.

13887/05

MUGA

CAB 34

**NOTA PUNTO "I/A"**

Nork: Kontseiluko Idazkaritza Nagusia

Nori: COREPER/Kontseilua

Gaia: Espainiako Erresumaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren artean egindako administrazio-akordiorako proiektua, Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofizialen estatutua duten gaztelaniaz beste hizkuntzak modu ofizialean erabiltzeko aukera egon dadin Kontseiluan.

1. Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan beste hizkuntza batzuk modu ofizialean erabiltzeko eskubidea dela-eta, Kontseiluak 2005eko ekainaren 13an onartutako ondorioen ildotik, (ikus AO C 148, 2005.6.18<sup>1</sup>), Espainiako Ordezkaritzak eta Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak administrazio-akordiorako proiektua egin dute (eranskinean jasota dago), Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofizialen estatutua duten hizkuntzak Kontseiluan erabiltzeko aukera egon dadin, betiere, ondorioetan finkatutako baldintzak errespetaturik.
2. Kontseiluaren ondorioekin bat etorrira, Kontseiluari dagokionez administrazio-akordio hau aplikatzen denean zuzenean zein zeharka sortzen diren kostuak Espainiako Gobernuak

<sup>1</sup> Erabaki horiek, 1/1958 zenbakiko Erregelamenduan jasota ez dauden hizkuntzei buruzkoak

hartuko ditu bere gain.

3. Ordezkaritza guztiek, 2005eko urriaren **27an, ostegunez**, beren oniritzia eman zioten eranskinean jasota dagoen testuari.

4. COREPERek baiespera eman ondoren, Kontseiluari eskatzen zaio eranskinean jasota dagoen administrazio-akordiorako proiektuari oniritzia eman diezaion eta Lehendakaritzari Kontseiluaren izenean testua sinatzeko baimena eman diezaion.

---

---

dira.

**ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAREN  
ARTEKO ADMINISTRAZIO AKORDIOAREN PROIEKTUA**

**Espainiako Erresumak, batetik, eta Europar Batasuneko Kontseiluak, bestetik;**

Kontseiluak 2005eko ekainaren 13an onartutako ondorioak ikusi dira, beste hizkuntza batzuk ere modu ofizialean erabili ahal izateko, bai Kontseiluan, bai eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan ere;

Aintzakotzat hartu da, Europar Batasunean, Kontseiluak 1/1958 Erregelamenduan adierazitako hizkuntzez gainera, badirela zenbait estatu kideetan, lurralde osoan zein zati batean, hizkuntza ofizialen estatutu konstituzionala duten beste hizkuntza batzuk ere, edo, legeak halaxe baimenduta, hizkuntza nazional gisa erabiltzen direnak.

Aintzakotzat hartu da, Batasuna herritarrengandik hurbilago egoteko ahaleginean, behar-beharrezkoa dela indar handiagoz kontuan hartzea, batetik, aniztasun linguistikoa zein aberasgarri den, eta, bestetik, herritarrei instituzioekin beste hizkuntza horietan komunikatzeko aukera ematea zein garrantzitsu den Europar Batasunaren proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.

**ADMINISTRAZIO AKORDIOA** egitea adostu dute, era horretara, Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofizialen estatutua duten gaztelaniaz beste hizkuntzak modu ofizialean erabiltzeko aukera egon dadin Kontseiluan.

## ***Europar Batasuneko Kontseiluari idatziz egindako komunikazioak***

1. Espainiako herritar batek, Espainiako Zuzenbidea aplikatuta, Kontseiluari komunikazioa igorri nahi badio Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofizialen estatutua duen gaztelaniaz beste hizkuntza batean idatzita:
  - a) Gobernu espainiarrak berariaz horretarako izendatuta, arlo horretan eskumena duen organismoari igorriko dio komunikazio hori, eta organismo horrek Kontseiluko Idazkaritza Nagusira bidaliko du, gaztelerara egindako itzulpen batekin batera; komunikazioa jaso izanaren eguna, batez ere Kontseiluak herritarrari erantzuna emateko epe jakina duenean, Kontseiluak organismo horrengandik itzulpena jaso duen eguna izango da.

Kontseiluak organismo horri berari igorriko dio erantzuna, organismo hori baita Espainiako Gobernuak izendatutakoa, herritarrari erantzunaren itzulpena eman diezaion komunikazioaren jatorrizko hizkuntzan.
  - b) Kontseiluak ez du inolako erantzukizunik izango itzulpen horien edukiari dagokionez; gainera, itzulpenen testuan berariaz aipatuko da inguruabar hori.
2. Komunikazioa idatzi duen herritarrak Kontseiluaren erantzunari lotuta jarduteko epe jakina duenean, eta 1. puntuaren a) idatz-zatian ezarritakoaren salbuespen modura, Kontseiluak zuzenean igorriko dio erantzuna herritarrari gazteleraz, bai eta, aldi berean, horretan eskumena duen organismoari ere. Kontseiluak, erantzuna ematen duenean, herritarrari jakinaraziko dio erantzunari erantzunez jarduteko epea orduantxe hasiko dela kontatzen, alegia, erantzuna gazteleraz jaso den egunean bertan. Kontseiluak bere erantzunaren kopia igorriko dio eskumena duen organismoari, organismo hori baita Espainiako Gobernuak izendatutakoa, herritarrari erantzunaren itzulpena eman diezaion komunikazioaren jatorrizko hizkuntzan, eta horren berri jakinaraziko dio herritarrari. Kontseiluak ez du inolako erantzukizunik izango itzulpen horien edukiari dagokionez; gainera, itzulpenen testuan berariaz aipatuko da inguruabar hori.
3. Herritarrak 1. puntuan jasota dauden hizkuntzetako batean Kontseiluari komunikazioa zuzenean igortzen dionean, Kontseiluak igorleari bueltatuko dio berriz komunikazioa, eta jakinaraziko dio komunikazioa berriz bidal dezakeela hizkuntza horretan, baina Gobernu espainiarrak horretarako izendatutako organismo eskudunaren bitartez igorri behar duela.

4. Administrazio-akordio honetara bildutako aldeek hitza eman dute hartu beharreko neurri guztiak hartuko dituztela, uneoro isilpekotasun arloan dauden arauak errespetatuta, akordio honi dagokionez egindako komunikazio guztiak isilpean gorde daitezzen, batez ere, Gobernu espainiarrak izendatutako organismo eskudunak egin behar duen itzulpenari dagokionez.

***Kontseiluaren bilkuretan ahoz parte hartzen denean***

5. Espainiako ordezkariak, hala badagokio, Espainiako Konstituzioan hizkuntza ofizial izendatutako gaztelaniaz beste hizkuntzetako bat erabili ahal izango dute Kontseiluaren osoko bilkura batean, betiere, honako baldintza hauek beteta:
  - a) Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek, sei hileko bakoitzaren hasieran, Kontseiluko Idazkaritza Nagusiari zerrenda bat emango dio, bertan zehaztuta Kontseiluaren osoko bilkuretatik zeinetan gerta litekeen, agian, aipatutako hizkuntza horietakoren bat erabiltzeko eskabidea aurkeztea.
  - b) Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek, gutxienez, Kontseiluaren osoko bilkura egin baino zazpi aste lehenago, Kontseiluko Idazkaritza Nagusiari jakinarazi behar dio Espainiako ordezkariak eskaera egin duela, ahozko hitzaldietan hizkuntza horietakoren bat erabili nahi duela-eta (interpretazio pasiboa); egindako eskaera hori, beranduenik ere, Kontseiluaren bilkura izan baino hamalau egun natural lehenago baietsi behar da behin betiko.
  - c) Eskaera horiek onartu egingo dira printzipioz, salbu eta Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak, Interpretazio eta Konferentzia Zerbitzu Erkide Nagusiari kontsulta eginda, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorri jakinarazten badio, beharrezko diren giza baliabideak eta bitartekoak nahikoak ez direla.
6. Interpretazio pasiboa eskaintzeko zerbitzuak zuzenean zein zeharka dakartzan gastuak, alegia, Interpretazio eta Konferentzia Zerbitzu Erkide Nagusiak Kontseiluari fakturatutakoak, baita saioa bertan behera geratzen bada ere, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek ordainduko ditu, 11. eta 12. puntuetan agindutakoari jarraituz.

### ***Elkarrekin erabakita onartutako egintzen publizitatea***

7. Espainiako Gobernuak, edo berak horretarako izendatutako organismoak, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertu diren modu berean, Europar Batasunean elkarrekin erabakita onartutako egintzak hartu, eta zinpeko itzulpenak egin ahal izango ditu aipatutako hizkuntza horietara, eta Kontseiluko Idazkaritza Nagusira bidali, bide elektronikoak erabiliz.
8. Kontseiluak bere artxiboetan gordeta izango ditu zinpeko itzulpen horiek, eta, hala eskatuz gero, Batasuneko edozein herritarri kopiak emango dizkio, ahal dela bide elektronikoak erabiliz.
9. Kontseiluak esteka sartuko du, Interneten duen gunea eta Espainiako Gobernuak itzulpenak eskaintzeko jarriko duen orria lotuta egon daitezen. Kontseiluak Interneten duen gunean, hizkuntza ofizialetan eta lan-hizkuntzetan adieraziko da Batasuneko erakundeak ez direla erantzule izango itzulpenen edukiari dagokionez, eta itzulpen horiek ez dutela balio juridikorik izango.
10. Zinpeko itzulpen bakoitzean azpimarratuko da Batasuneko erakundeak ez direla erantzule izango itzulpenen edukiari dagokionez, eta itzulpen horiek ez dutela balio juridikorik izango. Ildo beretik lelo bera adieraziko da, dena delako itzulpenaren hizkuntza horretan bertan, zinpeko itzulpen bakoitzaren lehendabiziko orrian eta hurrengo orrietako bakoitzean, goiburuan, baita Espainiako Gobernuak itzulpen horiek eskuragarri jarri ditueneko Internet gunearen hasierako orrian ere.

### ***Kostuak***

11. Kontseiluari dagokionez administrazio-akordio hau aplikatzen denean zuzenean zein zeharka sortzen diren kostuak Espainiako Gobernuak hartuko ditu bere gain.
12. Horri lotuta, Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak sei hilero oharra aurkeztuko dio Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrari kostu horiek guztiak zehaztuta. Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek hilabeteko epean ordaindu beharko du diru-kopuru hori, jakinarazpena egin den egunetik kontatzen hasita.

### *Azken xedapenak*

13. Espainiako Gobernuak Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiari jakinarazten dionean 1., 2. eta 7. puntuetan adierazitako itzulpenak egiteko izendatu duen organismoa zein den, orduan hasiko da aplikatzen akordio hau, betiere, Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak Espainiako Gobernuari akordio hau aplikatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartu direla jakinarazi ondoren.
  
14. Administrazio-akordio hau berriz aztertu behar dela edo amaitu egin behar dela erabaki dezakete bi alderdiek. Bi alderdiek akordioa nola ari den aplikatzen aztertuko dute, indarrean hasi eta handik urtebetera.

---